



Esp. kodea: 2024DKRE0004

Gaia: 4. KREDITU ALDAKETA (2.KREDITU
GEHIGARRIAK)
Hasiera eguna: 2024/05/30

ZIURTAGIRIA

NIK, Ana Belen Hidalgo Corral andrea, ARRASATEKO UDAL AGURGARRIKO IDAZKARIAK,

ZIURTATZEN DUT:

Udaleko Osoko Bilkurak, 2024ko ekainaren 4an egindako bilkuran, besteak beste, erabaki hau hartu zuen:

“KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN KREDITU-ALDAKETA ONARTZEA (2024DKRE0004).”

Ogasun batzordearen diktamena:

“Udal honen aurtengo aurrekontuaren barnean kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko izapidetzen ari den espedientea aztertu dugu.

Kreditu gehigarriak finantzatzeko dituzten sarrerak bat datoz espedienteari aplikagarria zaion araudian aurreikusitakoekin, eta oso-osorik finantzatzen dute gastu gehikuntza.

Halaber, Kontu-hartzaileak egindako aldeko txostena ere aztertu dugu.

Azaldutako guztiarengatik, eta kreditu aldatetako finantzaketa nahikoa eta egokia duela kontuan hartuz, Batzorde honek EH-BILDU udal taldeko ordezkariaren aldeko botoekin, eta EAJ-PNVko eta PSE-EEko udal taldeetako ordezkarien aurkako botoekin, Udalbatzari akordio hauek hartzea proposatzen dio:

LEHENENGOA.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarriak modalitateakoa (2024DKRE0004), 2.568.370,00 eurokoak, proposamenen adierazten diren partiden xehetasunarekin eta kapituluka laburpen honen arabera:

Kodea	H24/03759	Udala	Arrasate/Mondragón
Data	2024/eka./07	CUDO	000.0055.AAA116BY.N.j8Ma
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA116BYN.j8Ma		
Dokumentu honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia			







Esp. kodea: 2024DKRE0004

Gaia: 4. KREDITU ALDAKETA (2.KREDITU
GEHIGARRIAK)
Hasiera eguna: 2024/05/30

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
1	PERSONAL GASTUAK	301.310,00
2	ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK	663.855,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	4.000,00
6	INBERTSIOAK	1.599.205,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		2.568.370,00

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOEN ALDAKETA	2.568.370,00
GUZTIRA		2.568.370,00

BIGARRENA.- Aipatu espedientea jendaurrean jartzea 15 egun balioduneko epean, interesdunek aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkezteko.

HIRUGARRENA.- Jendaurreko epean ez bada aurkezten inolako erreklamaziorik, hasierako akordioa kontsideratzea behinbetikoz onartua.”

EMENDAKIN partzialak, EAJ-PNV udal taldeak aurkeztuta

Kreditu gehigarrien modalitatean kreditu - aldaketari emendakin partzialak.

Erdialdean haur jolas parke bat estaltzeko partida 100.000€

Udalbatzarra osatzen duten legezko 21 zinegotzietatik 19 bilkuran daudela, Udaleko Osoko Bilkurak, aurkako 10 botorekin (EH BILDU eta ELKARREKIN ARRASATE) eta aldeko 9 botorekin (EAJ-PNV eta SOCIALISTAS VASCOS-EUSKAL SOZIALISTAK), EAJ-PNV udal taldearen emendakin hau baztertu du:

“1- Erdialdean haur jolas parke bat estaltzeko partida 100.000€

Kodea	H24/03759	Udala	Arrasate/Mondragón
Data	2024/eka./07	CUDO	000.0055.AAA116BY.N.j8Ma
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA116BYN.j8Ma		
Dokumentu honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia			



Esp. kodea: 2024DKRE0004

Gaia: 4. KREDITU ALDAKETA (2.KREDITU
GEHIGARRIAK)
Hasiera eguna: 2024/05/30

Gaur egun erdialdean ez dago haur parke estalirik. Gure proposamena izango litzateke partida bat sortzea herritarrek prozesu partehartzaile batetan erabakitako erdialdeko haur parke bat estaltzeko.

Finantzaketa ondorengo partidaren kontura izango litzateke: 2 0600.870.000.00.01 2024 DIRUZAINITZAKO GERAKINA GASTU OROKORRAK 100.000€”

Santa Teresa Doneztebe portuko dirulaguntzak partida handitzeko 2.000.000€

Udalbatzarra osatzen duten legezko 21 zinegotzietatik 19 bilkuran daudela, Udaleko Osoko Bilkurak, aurkako 10 botorekin (EH BILDU eta ELKARREKIN ARRASATE) eta aldeko 9 botorekin (EAJ-PNV eta SOCIALISTAS VASCOS-EUSKAL SOZIALISTAK), EAJ-PNV udal taldearen emendakin hau baztertu du:

“Santa Teresa eta Doneztebe portuko etxebizitzak efizientzia energetikoa eta irisgarritasuna bermatzeko obrak egiteko dirulaguntza partida ez da nahikoa izan interesa zuten bizilagun bloke guztiei eman ahal izateko, eta bloke batzuk kanpoan geratu dira. Gure proposamena da partida handitzea, kanpoan geratu diren horiei aukera emateko.

Finantzaketa ondorengo partidaren kontura izango litzateke: 2 0600.870.000.00.01 2024 DIRUZAINITZAKO GERAKINA GASTU OROKORRAK 2.000.000€”

Udalbatzarra osatzen duten legezko 21 zinegotzietatik 19 bilkuran daudela, Udaleko Osoko Bilkurak, aldeko 10 botorekin (EH BILDU eta ELKARREKIN ARRASATE) eta aurkako 9 botorekin (EAJ-PNV eta SOCIALISTAS VASCOS-EUSKAL SOZIALISTAK), Ogasun batzordearen diktamen hau onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Eta hala jasota geratzeko eta ondorio egokiak sortzeko, ziurtagiri hau egin eta sinatzen dut, Alkateak agindu eta ontzat emanik, Arrasaten, 2024ko ekainaren 7an.

OE

Alkatea

Kodea	H24/03759	Udala	Arrasate/Mondragón	
Data	2024/eka./07	CUDO	000.0055.AAA116BY.N.j8Ma	
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA116BYN.j8Ma			
Dokumentu honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				